



SORKUNTZA GUNEAK FRUITUAK EMATEN DARRAI

El trabajo de los grupos del Centro de Creación Artística sigue dando sus frutos

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko

BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 ↪ Beasaindarrei egokitutako herri eta hirigintza eredua
- ↪ Nueva arquitecta en el Ayuntamiento de Beasain
- ↪ Martxan da Oria pasealekuko igogailuaren proiektu berria
- ↪ Merkataritza indartzeko plan bereziaren azterketaren ondorioak lantzen

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ↪ Porterriako auzo elkartearen 25. urteurrena
- ↪ Kriseiluen aieratzea, Gure Esku Dagok antolatuta
- ↪ Euskal Herriko Trikitixa Eguna
- ↪ Portugal Tour MTB 2016 - Jon Erguin beasaindarra 3.
- ↪ Arku-tiro txapelketa Loinatzen
- ↪ Liburuaren nazioarteko eguna
- ↪ Antzerkia: Stralurtar stories
- ↪ Bealak talde beasaindarra irabazle Goierriko 7 orduetan
- ↪ Musika emanaldi didaktikoa

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ↪ Sorkuntza Guneak fruituak ematen darrai

MAIATZEAN BEASAINEN...

Badatoz Loinatz Jaiak!!!



GUTUNA

Leire Artola

Hirigintza
zinegotzia**BEASAIN DARREI EGOKITUTAKO HERRI ETA
HIRIGINTZA EREDUA**

Zaila egiten zaigu, sarritan, hirigintza ekimenak pertsonekin eta pertsonen behar eta nahiekin lotzea, baina obrek, txikiek zein handiek, herritarren beharrei erantzutea eta beren bizi kalitatea eta egunerokotasuna hobetzea izaten dute xede.

Beasaindarrei eta beren beharrei egokitutako herri eta hirigintza eredian sinesten dugu, pertsonak ardatz izango dituen eredian, hain zuzen, herritarrei herri erosoagoa, atsegina, irisgarriagoa eta osasuntsuagoa eskaintzeko.

Beasaingo kale eta plazak harremanetarako espazioak dira, herritarren hartu-emanerako gune ezin hobeak. Akupuntura urbano kontzeptu eta filosofia aplikatzen ari gara gure hirigintza jardunean, honek, hirigintza ekimen txikien bitartez herritarrengan eragitea eta aisialdi eta elkargune eremu berriak sortzea baitu helburu. Ez da kasualitatea, hainbat zebra-bide argiztatu izana, ezta ere gune degradatuenak berreskuratu eta indartu nahi izatea, Zazpiterrieta eta Nekolalde kaleetan hobekuntzak egitea edota Kale Nagusia berritzea.

Argi dugu nolako Beasain eraiki nahi dugun eta eskaini nahi diegun herritarrei, orain, bihar eta etorkizunean, betiere, beasaindarrak eta pertsonak ardatz izango dituen hirigintza eredu batetik.

UN URBANISMO PENSADO PARA LAS PERSONAS

Con las actuaciones urbanísticas que impulsamos y llevamos a cabo desde el Ayuntamiento nos proponemos, siempre, dar respuesta a las necesidades de las y los beasaindarras, además de crear lugares de encuentro donde podamos relacionarnos y movernos sin ningún impedimento ni barrera arquitectónica. Debemos hacer de nuestras calles y plazas espacios accesibles de encuentro y ocio para todos. Por ello, las pequeñas obras, así como las de mayor envergadura, pretenden mejorar la accesibilidad y el estado de nuestros espacios públicos, para hacer de Beasain un lugar más amable, agradable, cómodo y atractivo para las personas de Beasain.

**NUEVA ARQUITECTA
EN EL AYUNTAMIENTO
DE BEASAIN**

“Aitziber Olarte arkitekto bizkaitarrak eskainiko dizkio udalari hirigintza aholkularitza tekniko zerbitzuak datozen 4 urteetan, esleipena gauzatzeko udalak martxan jarritako lehiaketa publiko eta irekian puntuaziorik altuena lortu ostean.”

Los servicios de asesoría en urbanismo han sido adjudicados a Aitziber Olarte quien comenzó hace escasas semanas a trabajar en el Ayuntamiento de Beasain tras haber obtenido la mayor puntuación en el concurso público llevado a cabo por el Ayuntamiento. Para dicha adjudicación se ha elaborado un estricto pliego de condiciones con el objeto de contratar el servicio que mejor responda a las necesidades urbanísticas municipales.

Tras aprobarse el 7 de enero el pliego de condiciones, las personas interesadas pudieron presentar sus solicitudes hasta el 29 de enero. En base a los criterios establecidos, 11 fueron las propuestas admitidas a concurso. 7 de ellas continuaron y las demás solicitudes quedaron fuera del concurso por no contar con el título post-grado requerido en el pliego. Otros dos solicitantes quedaron atrás por no aprobar el examen de euskera, de manera que pasaron 5 solicitantes a la última fase donde se puntuaron técnica y económicamente las propuestas presentadas.

En este caso, la arquitecta vizcaína Aitziber Olarte obtuvo la mejor puntuación, por lo que ella ha sido la persona contratada para ofrecer el servicio de asistencia técnica en materia de urbanismo para los próximos cuatro años.

MARTXAN DA ORIA PASEALEKUKO IGOGAILUAREN PROIEKTU BERRIA



“Tras haber sido aprobado por el vecindario el nuevo proyecto del ascensor, este se ubicará junto a la columna redonda en el acceso al frontón Ezkierdi, uniendo así las calles Oria pasealekua y Mariarats. De este modo se evita la expropiación de terrenos y la afección a las redes de agua, gas y electricidad.”

Aurreko legealdian, udalak, 120.000 euro Ezkiaga auzoko bizilagunen esku utzi zituen. Zer egin erabakitzeko eta dirua zein proiektura bideratu adosteko, 2014ko maiatza-ekaina bitartean parte hartze prozesua burutu zuen aurreko udal gobernuak. Aukera ezberdinen artean, Oria pasealekuko igogailuak jaso zuen babes gehien. Igogailuaren hasierako proiektua burutu ahal izateko beharrezkoa zen lur-eremua desjabetzea. Gainera, lur azpiko garaje batzuen gainean egitea zegoen aurrikusia eta bertatik ur, gas eta elektrizitate sareak igarotzen direnez, proiektuak aurkako txostenak jaso zituen.

Aurreko legealdian desjabetze prozesua martxan jarri bazen ere, gobernu talde berriak lehen proiektu hura bertan behera uztea erabaki zuen teknikoki ez zelako egingarria. Gauzak horrela, 2014an bizilagunek hartutako erabakia errespetatuz, igogailua ezartzeko aukera berriak aztertzeari ekin zion udalak. Auzoko bizilagun elkartearekin elkarlanean aztertu dira aukera desberdinak eta

azkenean, igogailua, hasierako lekutik metro gutxira eraikitzea proposatu zaie bizilagunei. Proiektu berria aurrera eramateko, gainera, ez da lurrik desjabetu behar.

Auzotarrek begi onez ikusi dute aurkeztutako proiektua eta kokapen berriari beren onspena eman ostean, martxan da, dagoeneko, Ezkiaga auzorako igogailu berriaren proiektua.

Zazpiturrietako igogailua

Baina Oria pasealekukoa ez da Ezkiaga auzoan ezarriko den igogailu bakarra izango. Poliki-poliki Beasaingo irisgarritasuna hobetzea da asmoa eta, helburu horrekin, Iturrioz eta Zazpiturrieta kaleak lotuko dituen beste igogailu bat eraikiko du udalak. Zazpiturrietakoa aurten hasiko dira eraikitzen, Oriakoa aldiz, proiektuaren idazketa amaitu ondoren eraikiko da, 2016 amaieran edota 2017 hasieran.

UDALA MERKATARITZA INDARTZEKO PLAN BEREZIAREN AZTERKETAREN ONDORIOAK LANTZEN ARI DA ERAGILE DESBERDINEKIN

Duela hilabete batzuk eman zitzaion hasiera Merkataritza Indartzeko Plan Bereziari. Diagnosi fasean herriko merkatariek, udal ordezkariak eta beasaindarrek hartu dute parte eta azterketak xede izan du udalerriko egoera eta errealitatea ezagutzea, batez ere, erosketa ohiturei eta eskaintzari dagokionean.

Horiek horrela, azken asteotan, eragile desberdinekin partekatzen eta lantzen ari

da Udala azterketaren ondorioak, honen ostean, behin betiko txostena gauzatzeko, zeinak 2020ra bitartean burutuko diren ekintza zehatzak jasoko dituen. Ekintzok, merkataria eta ostalariekin elkarlanean eramango ditu aurrera udalak, merkataritza babestea eta indartzea lehentasunezkoa delako udalarentzat, merkataritzak kaleei bizia emateaz gain, lanpostuak ere sortzen dituelako.

APIRILEKO EKINTZAK

Porteriako auzo elkartearen 25. urteurrena

1991ean sortu zen Ezkiagako auzo elkarte eta zilarrezko ezteiak ospatzeko, besteak beste, bazkaria, pailazo emanaldia, txokolate merienda eta pintxo potea antolatu zituen elkarteak.



Kriseiluen aireratzea, Gure Esku Dagok antolatua



Igartza Musika: Euskal Herriko Trikitixa eguna



Portugal Tour MTB 2016 txapelketako sailkapen orokorrean 3. Jon Erguin beasaindarra



Estatuko beteranoen arku- tiro txapelketa Loinatzen




Liburuaren nazioarteko egunaren harira banatutako Irakurzaletasunaren sariak



Sarituak: Eluska Gonzalez Aseginolaza, M^a
Rosario Albisu Mendiola, Naia Arizmendi
Palacin, Aroa Gonzalez Delgado eta Aintzane
Zabalegi Gorrotxategi.

Institutuko ikasleen antzezlanak: Stralurtar stories



Musika Eskolaren entzunaldi didaktikoa



Bealak talde beasaindarra irabazle Goierriko 7 orduetan



Argazkiak: Miguel Caverio

SORKUNTZA GUNEA FRUITUAK
EMATEN DARRAI

Bertako zenbait Musika taldek lan berriak kaleratu berri dituzte eta jaietan ikusi ahal izango dira

ELKARRIZKETA

Albiste zarete disko berriak kaleratu dituzuela eta. Ze ezaugarri dituzte bakoitzaren kasuan?

Suk37 "Hasi" izena jarri diogun CD honek 6 abesti bakarrik ditu. Nahiz eta gure abesti gehiago izan 6 sartzera ausartu gara, gainera, oso ezberdinak diren 6 abestiek. Badago balada estiloko bat, Punk toke bat duen abestiak ere badaude... Denetik aurkitu daiteke.

TheSin Gurea bigarren diskoa izan da, "Miseria y Crueldad" deiturikoa. 10 kantuz dago osatua, euskaraz eta gazteleraz, eta orokorrean, eritmo bizikoak eta laburrak dira. Urria, azaroan hasi ginen grabatzen eta azkenik, urtarila amaieran lortu genuen argitaratzea. Iruñean grabatu dugu gure lagun baten estudioan (Sound of Sirens). Oso pozik gaude emaitzarekin eta jendeari orokorrean asko gustatu zaio, kritika oso onak jaso ditugu.

Nikkin NIKKINen lehen diskoa "IHES" da. 9 kantuz osatutako istorio bat bezala da. Nire musika ibilbidean nondik natorren eta nora joan nahi dudana zehazten dut.

Noiztik zaudete Sorkuntza gunean eta zer suposat du zuentzako honelako azpiegitura bat izateak zuen lanean, garapenean... zertan lagundu dizue?

Suk37 Ireki ziren lehen egunetik gaude bertan. Lokala izateak taldea sortzea suposatu zuen. Gaur egun, horrelako azpiegiturarik gabe oso zaila da gu bezalako talde batek aurrera egitea, beraz, eskerrak ematea besterik ez dugu. Azpiegitura honek entsegurako leku

eder bat ematen digu, bertan dauden taldeekin harremana sor dezake, gainera ordutegi irekia izatek izugarrizko askatasuna ematen dizu entseatzeko.

TheSin The Sinners bezala taldea sortu zenetik. Hainbat taldekidek beste talde batzuetan jotzen genuen eta horien lokaletan egin genituen lehen entseguak, ondoren lortu genuen gure lokal propioa taldea guztiz kontsolidatu genuenean. Oso laguntza handia eskaintzen digu entseatzeko horrelako lokal bat eduki ahal izateak, komunekin, wifi-arekin, segurtasun ateekin... eta dohain gainera. Entseatzeko, taldearen materiala gordetzeko etab. oso ondo dakorkigu.

Nikkin Ni sorkuntza gunean hasi-hasieratik nago eta bertan zeuden 3 taldeetan jo dut. Lokalen eskuratzeak garajeetan egonez jendea ez molestatzeko suposatu digu. Taldeak osatzerakoan jada lokal bat edukitzea abantaila handi bat da.

Nola baloratzen duzue aretoetan biltzen zaretenon dinamika, zuen arteko harremana, giroa, ...?

Suk37 Dinamika oso positiboa da, norberaren lokalera goazenean bidetik hainbat lokal pasatzerakoan era ezberdinetako musika entzuten duzu, guztia beasaindarrek sorturikoa, ederra da pentsatzea guzti hori hemendik atera dela. Gainera, lehen aipatu bezala, giroa ederra da. Geroz eta gehiago ezagutzen gara eta hori oso positiboa da proiektu berriak sortzeko.

El Centro de Creación Artística (o también llamado locales de ensayo para grupos de música) situado en los bajos del polideportivo Antzizar y al amparo del Ayuntamiento, sigue dando sus frutos. En lo que llevamos de año y en estas últimas fechas son ya tres los grupos que han publicado sus trabajos musicales, **The Sinners**, **Sukarra 37** y **Nikkin**. En 2004 se habilitaron los primeros 3 locales y en su última reforma en 2013 se crearon otros 28 locales. Actualmente, 23 grupos y más de cien personas desarrollan en el centro su actividad. La mayoría son grupos de música, pero también los hay de teatro, culturales, solidarios, lúdicos...



TALDEAK

Sukarra 37

2013ko udan sortua

Kideak: Alain Lopez (Gitarra eta ahotsa), Koldo Galarreta (Gitarra eta koruak), Oier Ruiz de Azua (Bateria eta koruak), Beñat Losada (Bajua)

Musika estiloa: Rock-a. Oso berezko egiten dituen Rock-a, melodiari garrantzia ematen zaion letrarekin.

The Sinners

2012an sortua

Kideak: Xabi, Mermel, Prado, Jondi eta Agirre
Musika estiloa: Punk, Oi!, Streetpunk, Hardcore eta horrelakoak erreferentzia gisa, eta guztien nahasketa pertsonal bat egiten dute.

Nikkin

Nikkin 2014an sortu zen, Igor Alustiza bakarlaririk hartutako izena. Rock industrial estiloa lantzen du.

TheSin Taldeen artean oso harreman ona dago. Herrikoak izanik gehienok, elkar ezagutzen gara edota kontzertuetan oholza partekatu izan dugu. Orokorrean asko entseatzeko da lokal guztietan eta hori oso positiboa da taldeek bizirik jarrai dezaten.

Nikkin Talde batzuekin harremanik izan ez arren, gehiengoarekin ez dago inongo arazorik.

Beasainen, orokorrean, nola ikusten duzue musika taldeen egoera orain eta etorkizunean?

Suk37 Beasaingo taldeen egoera oso ona da. Talde asko daude eta hori beti positiboa da. Egia da merkaturako izan daitekeen musika, agian, ez dela nagusi, baina garrantzitsua dena, jendeari gustatzen zaion musika da, beraz, horrek horrela jarraitzen duen bitartean taldeak egongo dira.

TheSin Gure estiloari dagokionez ez dago bere momentu hoberenean. Orain dela urte batzuk talde gehiago zeuden (Residuos Sistemáticos, Hell Beer Boys, The Last Strength...) eta horrek motibazio gisa balio zuen talde berriak sortu zitezen. Orain modu aktiboan The Sinners eta Northern Pride soilik gaude gure estiloari dagokionez. Gustatuko litzaziguke hemendik urte gutxira talde gehiago sortzea eta gazteek talde bat sortzeko grina berreskuratzea, bestela hemendik urte batzuetara ez da bat bera ere egongo. Beasaingo festetan azken 4 urteetan ia talde berdinak izan gara jo izan dugunak herriko taldeek jotzen dugun

gauean, horrek islatzen du talde berri oso gutxi sortzen direla.

Nikkin Beasainen musika talde asko daude, eta kalitate aldetik ere oso onak direla esango nuke.

Non daude eskuragarri zuen lanak eta jaietan jo behar duzue?

Suk37 Gure proiektu berria "Hasi" CD-a youtuben aurkitu daiteke, beste plataforma digital batzuetara igotzeko asmoarekin gaude eta CD fisikoa ere aterako dugu. Oraindik ez dakigu non ipiniko dugun saltzen baina Facebookean jarraitzen digutenek (sukarra hiru zazpi) enteratuko dira, bertan jarriko baitugu noiz, non eta zenbatean. Amaitzeko, esan, baietz, Beasaingo festetan joko dugula maiatzaren 6an Txozna gunean.

TheSin Hemendik gertu Beasainen (Xuber tabernan), Ordizian (Lubaki tabernan), Lazkaon (Giroa tabernan) eta Tolosan (Eguzki tabernan) daude. Aurten ere festetan joko dugu, azken 3 urteetan bezala. Larunbatean joko dugu Maiatzak 7 Alerta Gorria eta Verrater taldeekin batera, Gipuzkoa plazan Txozna gunean. Animatzen zaituztegu bertara hurbiltzera!

Nikkin NIKKIN Bandcamp web orrialdean eskuratu daiteke, Irizar, Xuber eta Hiruki tabernetan Beasainen. Urdin eta Sughar tabernetan Ordizian eta Troskaetan Ataunen. Hurrengo kontzertua Beasainen maiatzaren 21ean ERTZ tabernan izango da eta ekainaren 3an Tolosako Bonberenean. •



Eizu
gaztelekua

Ordua 17:00

- 19 Mahai Jolasak
- 20 Tertulia
- 21 Txirrinduan irteera
- 22 Play eta Wii
- 26 Libre
- 27 Mahai jolasak
- 28 Role Playing
- 29 Play eta Wii



KZ
gunea

Maiatzeko ikastaroak

Argazki ukituak

2016/05/02-2016/06/01

Sare Sozialak

2016/05/02-2016/06/01

Wordpress: zure

webgunea sortu

2016/05/09-2016/05/25

Pinterest

2016/05/09-2016/05/18

Informazio gehiago:
www.kzgunea.eus

Ondo ibili, ondo izan
irteerak

Ordua 10:00

Elkargunea:

Estatua de San Martín

Maiatzak 5, 12, 19 eta
26 (ostegunak)



EÑAUT TOLOSA ETA ANDER ARRESE BEASAINDARREK
EGINIKO "EUSKAL BALEZALEEN TRISKANTZA" DOKUMENTALA
BEASAINEN ESTREINATUKO DA MAIATZAREN 27AN



Dokumentalak elkarrekin korapilatuko diren bi hari jorratzen ditu. Alde batetik, Islandian erailak izan ziren 32 euskal bale arrantzaleen historia kontatzen du marrazki bizidun-animazioen bidez eta bestetik, historian murgilduko diren ikertzaileen- Eñaut Tolosa dokumentalgile eta Ander Arrese eta Beñat Iturrioz arkeologoek bilaketaren berri ematen du. Hauek euskal marinelen ibilbidea berregingo dute, arrantzaleek hil aurreko azken egunetan egin zuten bidea jarraituz, urperatutako ontziak bilatuz, balezaleen aztarna arkeologikoak topatzen saiatuz, dokumentuak miatuz eta bertako adituak elkarriketatuz.



JAKINARAZPENA:

Beasaingo Loinatz Musika Eskola

- 2016/2017 ikasturterako Ikasle berrien izen ematea: Maiatzaren 16tik 27ra
 - "Musika bai" udalekuetarako izen ematea: Maiatzaren 30etik ekainaren 10era
- Non: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan**



Beasaingo Udala